

TREBAKUNTZA 2022-01: ORTOGRAFIA (H HIZKIA)

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Azken Jai batzordean **amabi** lagun elkartu ginen.
2. * Alkate **orrek** herritarren konfiantza bereganatu du.
3. * Ba **ahal** dakizu idazkaria nora joan den? **Zihur** al zaude?
4. * Langileak **amaiketako** egitera joan dira.
5. * Zure **maai** gainean geratu da bihar Osoko Bilkuran onartu behar dugun agiria.
6. * Bertso saioa **dohan** izango da, baina saioaren osteko afaria ez da **doainik** izango.
7. * Astelehenetik aurrera **arrrera** plana martxan egongo da. Gainera, batzuei **harreta** berezia eskaini beharko diegu.
8. * Krisiak eragindako murrizketengatik, Altxoroteko Udalak erabaki du ez duela langilerik kontratatuko. **Hare** gehiago, egoera ekonomikoak **obera** egiten ez badu, langileei soldata murriztea aurreikusi dute aurrekontuetan.

AZALPENA

Sarritan, ez dugu jakiten noiz erabili behar den H hizkia. Hemen lagungarri izan daitezkeen argibide batzuk:

- Bi bokal berdin jarraian ditugunean, bokala + hatxea + bokala: mahai, mehe, mihi, ohol, zuhur (salbuespena: haatik).
- Erakusleak H hizkiarekin idatzi behar dira: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek, honek, horrek, hark...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

- Normalean, zenbakiak (edota zenbakietatik datozen zenbait izenek) H hizkia hartzen dute: hamar, hamaika, hamabi, hoge, hogeita bat, hogeita bi, hirurogei, hamaiketakoak...

- Azken boladan, askotan ikusten dira nahastuta al eta ahal. Lehenengoa galderak egiteko erabiltzen dugu: "Etorriko al zara bihar?". Bigarrena, aldiz, ahalera adierazteko: "Ez dakit joan ahal izango dudan".

- Argibideok lagungarri izango zaizkizulakoan, hona hemen zalantzak eragiten dituzten hitz batzuen forma zuzenak:

Hatxerekin idaztekoak: dohainik, aholkua, aholkularia, ahoa, behintzat, hila(betea), hilerrria, hotsa, hutsa, hustu, ihes(i), mehea, oihana, oihu, leiho, lehoi, lehiaketa, harea (=hondarra), uholdea, hurbil(du), zehar, harrera...

Hatxerik gabekoak: doan, altzaria, amaiera, antza, arma, arra, auzia, auzoa, ibaia, ilargia, inauteriak (eta ez *ihauteriak), jarduera (eta ez *iharduera), ilea, leuna, saguzarra, on (baina hobe hitza h-rekin), are (are gehiago), urrun(du), ziur, arreta...

KONTUZ!

Gaztelaniatik hartutako hitz batzuek H hizkia galtzen dute euskaraz: umorea, umila, abila, omenaldia, ospitalea...

Beraz:

1. Azken Jai batzordean **hamabi** lagun elkartu ginen.
2. Alkate **horrek** herritarren konfiantza bereganatu du.
3. Ba **al** dakizu idazkaria nora joan den? **Ziur** al zaude?
4. Langileak **hamaiketakoak** egitera joan dira.
5. Zure **mahai** gainean geratu da bihar Osoko Bilkuran onartu behar dugun agiria.
6. Bertso saioa **doan** izango da, baina saioaren osteko afaria ez da **dohainik** izango.
7. Astelehenetik aurrera **harrera** plana martxan egongo da. Gainera, batzuei **arreta** berezia eskaini beharko diegu.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

8. Krisiak eragindako murrizketengatik, Altzoroteko Udalak erabaki du ez duela langilerik kontratatuko. **Are** gehiago, egoera ekonomikoak **hobera** egiten ez badu, langileei soldata murriztea aurreikusi dute aurrekontuetan.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699